



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**2019KO EKAINAREN 20KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

1. (deialdiko alde aurreko gaia) Behin betiko ebaztea ekainaren 13ko osoko bilkurako bozketan izandako berdinketak, Erregelamenduaren 92.1 artikulua adierazitakoari jarraituz, EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamenari dagokionez, gazte prekarietatearen kontrako talka plan berria indarrean jartzeari buruz. [11\11\02\01\00525]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

68/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aztertu eta ebaluatu ditzala Enpleguaren 2017-2019 Plan Estrategikoko 'Gazteen enplegua sustatzea' 3. jarduera-esparruaren emaitzak, 2018ko urteko planean garatutakoak.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, azterketa horren ondoren, egokitu eta egin ditzala beharrezko aldaketak 2019ko urteko planean, programa horiek beren eraginkortasuna areagotu dezaten, kalitatezko enplegua sustatze aldera gazteen artean.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Soldata Arrakalaren aurkako Estrategiaren esparruan, neurri zehatzak landu eta garatu ditzala soldata-eta lanaldi-desberdintasunak gutxitzeko gazteen kolektiboan".

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO
EL DÍA 20 DE JUNIO DE 2019**

1. (asunto previo de la convocatoria) Resolución definitiva de los empates ocurridos en las votaciones del pleno celebrado el día 13 de junio, de acuerdo con el artículo 92.1 del Reglamento, en relación con la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre la puesta en marcha de un nuevo plan de choque contra la precariedad juvenil. [11\11\02\01\00525]

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

68/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que analice y evalúe los resultados del ámbito operativo 3 'Fomento del empleo juvenil' recogidos en el Plan Estratégico de Empleo 2017-2019, desarrollados en el plan anual de 2018.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, tras dicho análisis, adecue y realice las modificaciones oportunas en el plan anual de 2019, para que estos programas aumenten su eficacia, con el objetivo de impulsar el empleo de calidad entre las personas jóvenes.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el marco de la Estrategia contra la Brecha Salarial, trabaje y desarrolle medidas concretas para reducir la desigualdad salarial y en la jornada laboral en el colectivo de las personas jóvenes".





2. (deialdiko 1. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako Estatuko Gorte Nagusietarako legegintzako ekimena baliatzeko lege-proposamena, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 143.4 artikulua aldatzeari buruz. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\17\00\00\00003]

Aintzat hartzea ezetsi egin da.

2. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley de iniciativa legislativa ante las Cortes Generales del Estado formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre modificación del artículo 143.4 de la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal.
[11\17\00\00\00003]

Rechazada la toma en consideración.





3. (deialdiko 2. puntua) Mozioa, Pello Urizar Karetxe EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, diputatu preso katalanei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00139]

Jatorrizko testua onetsi da.

21/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Kataluniak Espainiako Estatuarekin mantentzen duen gatazkak oinarri politikoa duela adierazten du eta, zentzu horretan, ordezkari politiko eta sozialen aurka zuzendutako prozesu judizialak konponbidea zaildu egiten duela.
2. Eusko Legebiltzarrak Kataluniako ordezkari politiko eta sozialen aurkako prozesu judiziala eten eta espetxetik kaleratzea eskatzen du.
3. Eusko Legebiltzarrak, Espainiako Estatuan dauden herri eta nazioen eskubideak errespetatu behar direla adierazten du eta bide demokratiko eta baketsuen bitartez proiektu politiko guztiak garatzea zilegi dela".

3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Pello Urizar Karetxe, parlamentario del grupo EH Bildu, sobre los diputados catalanes presos. [11\11\03\00\00139]

Aprobado el texto original.

21/2019

- "1. El Parlamento Vasco manifiesta que el conflicto que mantiene Cataluña con el Estado español tiene una base política y que, en ese sentido, el proceso judicial dirigido contra sus representantes políticos y sociales dificulta la solución.
2. El Parlamento Vasco solicita la suspensión del proceso judicial contra los representantes políticos y sociales de Cataluña y excarcelación de dichos representantes.
3. El Parlamento Vasco manifiesta que deben respetarse los derechos de los pueblos y naciones existentes en el Estado español y que es legítimo el desarrollo de todos los proyectos políticos por vías democráticas y pacíficas".





4. (deialdiko 3. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, torturaren eta botere-abusuen biktimak errekonozitzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00564]

Jatorrizko testua onetsi da.

69/2019

"Eusko Legebiltzarrak euskal erakundeei eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Nazio Batuen ekimenarekin bat egin dezaten ekainaren 26an Torturaren Biktimei Laguntzeko Nazioarteko Eguna gogorarazteko. Horren helburua da biktima horiek gizartearen aurrean aitortzea eta giza eskubideen urraketa larri horrek eragindako bidegabekeriak salatzea. Oroitzeko egintzen ikuspegia eta edukia talde parlamentarioekin ahalik eta adostasun handiena bultzatuz hartuko dira".

4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, sobre reconocimiento a víctimas de tortura y abusos de poder. [11\11\02\01\00564]

Aprobado el texto original.

69/2019

"El Parlamento Vasco insta a las instituciones vascas y, en particular, al Gobierno Vasco a sumarse a la iniciativa de Naciones Unidas de conmemorar, cada 26 de junio, el Día Internacional en Apoyo a las Víctimas de la Tortura. El objetivo es el reconocimiento de estas víctimas ante la sociedad por la injusticia que supone esta grave vulneración de derechos humanos. El enfoque y contenido de los actos de conmemoración se adoptarán promoviendo el máximo consenso posible con los grupos parlamentarios".





5. (deialdiko 4. puntua) Mozioa, M.^a del Carmen López de Ocariz López de Munain Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, 10/1998 Legea, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapenerakoa aldatzeko legearen aurreproiektua egiteari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00138]

Jatorrizko testua onetsi da.

22/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, landa-ingurunearen garapenerako legearen aurreproiektua egiteko izapidean, 1998ko legean jasotako helburu nagusiak birdefinitu eta eguneratzeaz gain, haren edukiak behar bezala kudeatzeko behar diren tresna administratibo eta ekonomikoak berritzeaz gain eta Leader araudiaren arabera toki-ekintzako taldeek izan behar duten papera eta protagonismoa egokitzeaz gain, eduki ditzala jarduteko ahalmena duten kontrol-organoak eta berme-mekanismoak, landa-ingurunearen beharrei eta nahiei irtenbideak emateko.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala, 2019. urtea amaitu baino lehen, landa-ingurunearen garapenerako lege-proiektua Legebiltzarrean, legealdi honetan izapidetu dadin".

5. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.^a M.^a del Carmen López de Ocariz López de Munain, parlamentaria del grupo Popular Vasco, referente a la elaboración del anteproyecto de ley de modificación de la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural. [11\11\03\00\00138]

Aprobado el texto original.

22/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el trámite de elaboración del anteproyecto de ley de desarrollo rural, además de redefinir y actualizar los objetivos generales previstos en la ley del 98, renovar los instrumentos administrativos y económicos necesarios para una buena gestión de sus contenidos y adecuar el papel y protagonismo que deben tener los grupos de acción local según la normativa Leader, cuente con órganos de control con capacidad de actuación y mecanismos de garantía, con el objetivo de dar soluciones a las necesidades y aspiraciones del medio rural.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, antes de que finalice el año 2019, presente el proyecto de ley de desarrollo rural en el Parlamento para su tramitación en esta legislatura".





6. (deialdiko 5. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, euskal enpresen kapitalean izandako partaidetza publikoen kudeaketari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00274]

Ezetsia.

6. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la gestión de las participaciones públicas en el capital de las empresas vascas. [11\11\02\01\00274]

Rechazada.

